

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

46. astea (2023/11/13-2023/11/19)

COVID-19aren intzidentzia aurreko asteko antzeko balioetan mantendu da. Bai gripearen aktibitateak, nola bronkiolitisaren intzidentziak eta ABSren detekzioek, gora egin dute aste honetan berriro ere.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 405,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (380,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek gora egiten jarraitzen dute.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 70 lagin jagoleen % 60,0 baieztatu da, 4 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 5,7), 9 gripe-birus (positibotasuna % 12,9) eta 11 ABS (positibotasuna % 15,7) atzeman direlarik. 17 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 24,3).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 13,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,4/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 109 SARS-CoV-2, 76 gripe-birus eta 155 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 405,1 kasukoa izan da (380,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 300,0/100.000 izan da Araban, 418,9/100.000 Bizkaian eta 431,6/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 3247,5 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 672,0 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 15-44 urteko adin-taldean izan ezik.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI gehienetan aurreko astearekin alderatuta.


AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 46. astea	Tasa 45. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	324,6	330,2	0,98 (0,90-1,08)
Arabar Errioxako ESI	579,4	502,7	1,15 (0,81-1,63)
Barakaldo-Sestaoko ESI	350,9	333,4	1,05 (0,92-1,20)
Barrualde-Galdakaoko ESI	425,7	389,6	1,09 (1,01-1,18)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	439,1	438,5	1,00 (0,93-1,08)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	470,5	405,2	1,16 (1,05-1,29)
Uribeko ESI	348,1	329,3	1,06 (0,95-1,17)
Bidasoako ESI	382,9	299,8	1,28 (1,08-1,52)
Debarrenako ESI	496,6	403,2	1,23 (1,06-1,44)
Debagoienako ESI	356,5	336,2	1,06 (0,88-1,28)
Donostialdeako ESI	384,5	364,4	1,06 (0,98-1,14)
Goierri-Urola Garaiako ESI	527,7	460,9	1,15 (1,01-1,30)
Tolosaldeako ESI	491,6	524,3	0,94 (0,80-1,09)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 7,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (5,3/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) goranzko joera mantendu eta 1060,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (714,0/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 70 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 60,0 baieztatu dira. 4 SARS-CoV-2, 9 gripe-birus (guztiak AH1pdm09) eta 11 ABS atzeman dira. 17 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan SARS-CoV-2aren positibotasuna aurreko asteko balioetan mantendu da (% 5,7). Gripe-birusaren positibotasuna % 12,9raino igo da (% 5,6 aurreko astean) eta ABSrena % 15,7ra (% 9,7 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 24,3koa izan da (% 33,3 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE


	46. astea		45. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	9	12,9	4	5,6	15	5,0
SARS-CoV-2	4	5,7	4	5,6	23	7,6
ABS	11	15,7	7	9,7	27	8,9
Metaneumobirus	0	0,0	2	2,8	2	0,7
Parainfluenza	3	4,3	3	4,2	14	4,6
Adenobirus	2	2,9	1	1,4	5	1,7
Errinobirus	17	24,3	24	33,3	98	32,3
Urtaroko CoV	2	2,9	5	6,9	8	2,6

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 13,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,4/100.000 aurreko astean), 12,5/100.000 emakumeetan eta 14,0/100.000 gizonetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 5 urtetik beherakoen adin-taldean eman da, 86,2 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 29,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherako eta 64 urtetik gorako adin-taldeetan, bereziki lehenengoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2ren eta gripe-birusaren positibotasunak aurreko asteko balioetan mantendu dira, % 10aren azpitik (% 7,7 eta % 8,0, hurrenez hurren). ABSren positibotasunak nabarmen egin du gora eta % 40,0an kokatu da. Errinobirusarena % 23,1eraino jaitsi da (% 41,0 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	46. astea		45. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	194	7,7	199	5,5	1292	13,0
Influenza	174	8,0	181	9,4	1079	6,0
ABS	140	40,0	141	20,6	818	16,0

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 109 SARS-CoV-2, 76 gripe-birus eta 155 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 76 gripe-birusetatik, 48 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 2 A(H3), 25 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2023/40 astetik 300 detekzio erregistratu dira, 296 (% 98,7) A motakoak eta 4 (% 1,3) B motakoa. Azpitipatutako A motako 79 birusetatik, 9 (% 11,4) A(H3) eta 70 (% 88,6) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, urrian, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboaren % 41,4 sekuentziatu dira. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak EG.5.1 (% 21,3), JD.1.1 (% 12,6), XBB.1.5 (% 11,9), DV.7.1 (% 5,1) eta XBB.1.16 (% 4,7) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 46. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 11,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,8/100.000 aurreko astean); 13,8 gizonetan eta 9,2 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 31 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (19 ospitaleratu aurreko astean), 22 gizon eta 9 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 90,3 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 46. astean, COVID-19 4 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean, aurreko astekoaren kopuru berdina. Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 4 izan da ere.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko azaroaren 22an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**